



Ardi galduaren parabola irakurriko dugu Bibliatik, eta haurrekin komentatuko. Jesusek oso gogoan gaitu **BETI**, bai ondo portatzean garenean eta bai gaizki portatzen garenean. Gure izena eskuan idatzita izango balu bezala. Jainkoaren eskua agertzen den orrian, haur bakoitzak bere izena idatz dezala. Gero, kortxoan ipiniko ditugu orriak.

Ardia osatzeko orria emango diegu.

Liburua 82. eta 83. orrialdeetan zabaldu, eta, denon artean, Aste Santuan zer ospatzen dugun adieraziko dugu.

1.- Jesus Jerusalemera iritsi da. Herritarrek eskuetan palma-orriak hartuta eman diote ongietorria, eta *hosanna* (gora!) oihukatuz.

2.- Jesusek oinak garbitu dizkie dizipuluei, nolabait adierazi nahian lagundu egin behar diogula elkarri eta partekatu egin behar dugula daukaguna.

3.- Jesusek bere dizipuluekin afaldu du. Hain zuzen ere, azken afari hori omentzen dugu eukaristian (mezetan).

4.- Epaitu egin dute Jesus, eta gurutzean hiltzera kondenatu.

5.- Jesusek, gurutzean, agur esan dio bere amari, eta barkatu egin die kalte egin dioten pertsona guztiei.

6.- Mariak, Jesusen amak, besoetan hartu du bere semearen gorpua.

Baina, hirugarren egunean, Jesus piztu egin zen. Horrek esan nahi du gure laguntza jasotzen duten pertsona guztiengan dagoela.

Orain, *Gure Aita* otoitza emango diegu haurrei. Irakurri egingo dugu, eta margotu egingo dute, etxera eramateko.





